

LAUGARREN GAIA: ESPAINIAR ESTATUKO HISTORIA KONSTITUZIONALA

1.ESPAINIAR ESTATUKO HISTORIA KONSTITUZIONALAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

- **Ezegonkortasuna:** Espainiar estatuko historia konstituzionala oso ezegonkorra izan da. Zortzi konstituzio egon dira indarrean Espainiako historian zehar gehi beste konstituzio proiektu edo saiakerak (indarrean jarri ez zirenak). Historialariek hiru arrazoi nagusi ematen dituzte Espainiako ezegonkortasuna azaltzeko.

1- Konstituzioaren ideia lehen une batetik lotu zen inbasore frantsesak zakartzen ideiarekin. Erreakzio mugimendu bat zabaldu zen European zehar eta baita Espainiar Estatuan.

2- Espainiaren kasuan ez zen benetako iraultza burgesik (iraultza liberalik) eman, are gehiago, denbora luze batean mantendu zen Antzinako Erregimenaren estatu forma, non, eleizak eta nobleziak botere maila handia zuten. Hori horrela izanda, indarrean sartu ziren lehen konstituzioak ez zuten atzean babesa emango zion klase sozialik izango.

3- Konstituzioek izaera partidiarioa/pendularra zuten. Konstituzio liberalaren atzetik kontserbadorea zetorren eta kontserbadorearen atzetik berriz liberala.

- **Izaera eratorria:** Beste herrialdeen eragin nabaria dute Espainiako konstituzioak eta dauden elementu propio eskasak dira normalean kontserbadoreenak.

- **Hausturak. Liberal vs Kontserbadore:** Espainiar konstituzionalismoan konstituzioa normalean hausturaz ezarri dira eta ez konstituzioaren erreforma bidez. Haustura horien atzean normalean aldaketa politikoak zeuden. (Boterean dagoen ideologiaren arabera izango da konstituzioa; konstituzioa boterean dagoen ideologiaren menpe egongo da).

- **Subiranotasuna: Partekatua ala nazionala.**

–Partekatua dela esaten dugunean esaten dugu subiranotasuna partekatzen dela erregearen eta gorteen artean.

–Nazionala dela esaten dugunean subiranotasuna gorreetan dagoela esaten dugu. (Gorte horiek sufragio murriztuaz hautatzen ziren).

- **Hauteskunde oinarri ahula:** Hauteskundeak ospatzen ziren baina sufragio murriztuarekin eta prozedura garbirik gabe.

- **Klientelismoa:** Administrazio publikoa erabiltzea norberaren zerbitzurako; (negozio propioetarako...)

- **Askatasun eta eskubideen berme ahula:** Konstituzio batzuek jasoko dute askatasun eta eskubide gutxi eta gainera jasotzen dituztenek ez dira egongo mekanismorik hauek aurrera eramateko.

- **Gobernu era monarkikoa**

- **Konstituzioek ezantzen zuten zentralizazioa** eta ondoriozko nazionalismoaren (abertzaletasunaren) agerpena edo jaiotza.

2.KONSTITUZIONALISMO ESPAINIARRAREN AROAK

1808ko Baionako Estatutua aparte utzita Espainiar Estatuak izan zuen lehen konstituzioa Cádizkoa izan zen (1812an). Baionako Estatutua Napoleonen inbasioarekin emandako gutuna izan zen, emandako konstituzioa (constitución otorgada), beraz, ez zen prozesu konstituziogile baten emaitza izan. Espainiar Estatuak goiz batu zen konstituzionalismo modernora; Frantzia ... etorritako mugimenduari. 1812ko konstituzioz geroztik zortzi konstituzio egon dira indarrean Espainian.

2.1. Aintzinako erregimenetik estatu liberalerako trantsiziora (1808-1833)

--**1812ko konstituzioa:** Cadizen egin zen 1812an. Izaera liberalerako konstituzioa. Erregimen liberal bat ezartzeko lehen ahalegina Espainiar Estatuan. Helburu nagusia: Absolutismoari amaiera ematea; horretarako hiru printzipio nagusitan oinarritzen zen konstituzio hau:

- 1- Subiranotasun nazionala (subiranotasuna parlamentuan, ez erregearen buruan)
- 2- Botereen banaketa eta mugaketa (botereek galduko dute beren izaera absolutua, Montesquieuren irizpideei jarraituz)
- 3- Ordezkaritza (Gorteetan biltzen diren ordezkariak nazio osoa ordezkatzeko dute). Momentu honetan ordezkariak betebeharreko funtzio bat izango da eta ez eskubidea, funtzio hori beteko du bere posizio ekonomikoa edo posizio intelektualarengatik ahalmen gehien duten herritarrek; sufragio unibertsala baztertua geratzen da.

Konstituzio hau oinarri sozial eta politiko oso ahulak zituen eta horren frogara dugu nola 1814an monarkia absolutua berrezartzen dela. Erregea itzultzean (Fernando VII.a) konstituzioa indargabetu: liberala eta absolutismoaren kontrako zelako.

1812ko konstituzioa berriz ere jarri zen indarrean hirurteko liberalerako (1820-1823), Riego jeneralaren altxamenduekin baina gero berriz ere konstituzioa indargabetu (San Luisen Ehun mila semeak)




2.2. Aro Isabeldarra (1834-1868)

Fernando VII hiltzean, eztabaida politiko berria zabaldu zen oinordetzaren inguruan. Era honetan, guda zibil bat piztuko da, bere anaia Karlosten aldekoak (Karlistak, ideia tradizionalen defendatzaileak) eta bere alaba Isabel II (Isabelinoak, ideia liberalen defendatzaileak) artean. Isabel II adin txikikoa zenez, Maria Kristina (bere ama) erregeorde izango da. Hastapenetan, Maria Kristina absolutista moderatua zen, baina herriaren babes liberalen aldekoekin lortzen zuenez, liberalen aldeko joera izango du. Ibilbide hori isladatuko da hurrengo bi konstituzioen bidez.

--1834ko Errege Estatutua: Izaera kontserbakorra zuen, emandako gutuna. Erregeak beste botere batzuen alde egiten zuen, kontzezio moduko bat zen. Testu laburra eta amaitu gabea (ez dago osatua). Subiranotasun partekatua (erregea eta gorteen artean). Ez zuen botere banaketaren printzipioa jasotzen eta sufragio oso murriztua zen.

1836an gorte berriak hautatu ziren, printzipioz konstituzioa errebisatzeko baina praktikan konstituzio berri bat jarri zen mahai gainean.



--1837ko konstituzioa: Izaera liberala. Luzera ertainekoa, eskubide eta askatasunak jasotzen zituen eta baita Estatuko botereen antolakuntza. Erregeak legeak betatzeko eskubidea zeukan (beto eskubidea).

Une honetan Lehen Guda Karlista eman zen (1833-1839). Egungo Euskal Herrian oso garrantzitsua.

Euskal Herrian karlistadak izan ziren benetako herri altxamenduak oso parte hartze zabalarekin. Ideologia karlista ideologia katoliko eta kontserbadorea zen. Euskal Herriko karlistek autogobernua defendatzen zuten, ordurarte egondako Lege zaharren bidez mantendu egiten zena. Nafarroa Erresuma estatusa 1839an galdu zuen.

Foruen elementu nagusiak:

- Autogobernuaren defentsa
- Aduana komertziala Ebro ibaian eta ez Piriniotan
- Armadari ezezkoa (Hego Euskal Herrian bizi zirenak ez zuten armadan parte hartzeko beharrik); antzinako lege zaharren ondorioz irabazi genuelako.
- Herri lurren jabego komunala
- Pase forala (Estatutik bazetorren erreforma bat foruen kontrakoa zena "kontrafuero" zegoen instituzio bat "Pase forala" formalki onartzen zuena baina ez zuela erreforma hori praktikan jartzen).

Lehen guda karlista Bergarako Besarkadarekin amaitu zen; Maroto (Kontserbadorea) eta Espartero (Liberala). Bergarako hitzarmena sinatu zuten. Itun horretan hurrengo adostu zen:

- Karlistek armak entregatzearen truke beren kargu militarrik gordeko zituzten
- Foruak errespetatuko dira Isabelen alde egitekotan.

Hala ere ez zen praktikara bideratu – 1839ko urriaren 25eko legea.

Lege hau liberalek (garaipena lortu zutenek) eratu zuten beren interesen alde.

1841ean Nafarroari dagokionez "Ley Paccionada" egon zen, 1839ko urriaren 25eko legearen 2.artikuluari jarraituz Nafarroak 1841ean onartu zuen bere foruak moldatzea. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia erabaki zuten bertan ez sartzea.

Behin guda karlista amaitu moderatuek nagusitasuna hartuko dute eta liberalak desplazatuko dituzte boteretik eta horren fruitua izango da bigarren konstituzioa aro Isabeldarraren barruan.



--1845ko konstituzioa: Izaera kontserbakorra. Subiranotasun partekatua (erregea eta gorteak). Erreformatarako saiakerak egin ziren, batzuek ez ziren indarrean jarri eta indarrean jarritakoak oso arin ezabatu ziren.

2.3. Seiurteko Iraultzailea (1868-1874)

1868an Isabel II.aren agintaldiaren aurkako altxamendu militar aurrerakoa eman zen, iraultza loriatsuaren moduan ezagutzen dena. Altxamendu militar horren ondorioz, gorte konstituziogile batzuk hautatu ziren eta indarrean jarri zen **1869ko konstituzioa**.

--**1869ko konstituzioa**: Izaera liberalekoa. Estatu liberal eta demokratiko baten saiakera izan zen. Konstituzionalismo liberal aurrerakoiaren parte da. Eskubideak modu zabalean arautu zituen. Erlijio askatasuna eman zen eta gorteak hautatzeko sufragio unibertsal maskulinoa ezarri zen; baina sufragio hori ez zen zuzena baizik eta zeharkakoa, hau da; gizon guztiak (adin txikikoak izan ezik) bozkatzeko zuten baina ez zuten zuzenean presidentea aukeratzeko, baizik eta, batzorde bat bozkatzeko zuten eta batzorde horrek presidentea hautatzen zuen.

Garai politiko ezegonkorra. Konstituzioaren ezarpenaren ondorioz garai gatazkatsua piztu zen berriz. Tartean lehen errepublika ezarri zen (1873-1874) baina altxamendu militar baten bidez amaitu egin zen.




2.4. Berrezarpena (1874-1931)

Altxamendu militar horren ondorioz Lehen Errepublika pikutara bidaltzen da eta Alfontso XII.a jartzen da errege, modu horretan berrezarria gelditzen da monarkia. Monarkia 1874.an berrezarria da eta Canovas del Castillo (kontserbadorea) sustatuta konstituzio berri bat onartu egingo da.

--**1876ko konstituzioa**: Izaera kontserbakorra, baina normalean sailkatzerako orduan Liberal-Kontserbadorea dela esan ohi da, bi alderdi politikoan (Liberal-kontserbadore) eztabaida politikoan onartu zelako. Liberal eta kontserbadoreen arteko adostasuna lortu zuen.

Bi alderdi politiko nagusi hauek iruzur politikoa (putzerazo, kazikismo...) egin zuten iraunkorki demokraziaren kaltetan; konstituzioaz esan behar da formalki Erregearen eta Gorteen artean adostutako konstituzioa izan zela. Aipatu behar da ere Erregeari botere zabalak ematen zizkiola. Erregea zen Estatu burua, armada burua, ezinbortzatuzkoa (inviolable).

Konstituzio honek ahalbidetu zuen sistema politiko biparidista bat; zein boterean liberalak eta kontserbadoreak txandakatu zituena (Turnismoaren aroa). Erlijio kristau katoliko eta erromatarra ezartzen zen Estatuko erlijio bakarra, erlijio askatasunaren amaiera eman zitzaion. Konstituzio hau gehien iraun duena izan da (Espainian), horrek esan nahi du elite politikoen babesa zuela, iruzur politiko batean eginda, eta mende bukaerara arte “egonkortasuna” bermatu zuela.



Ezegonkortasun politikoa ezarri zen (Primo de Riveraren diktadura) XXmende hasieran.

Ezegonkortasuna hainbat faktoreengatik: langile grebak, ikasleenak, atentatuak, Espainia hainbat gerretan sartuta zegoela, azken kolonien galera (Kuba, Filipinas, Puerto Rico)...

Legea eta ordena ezartzeko Primo de Riveraren diktadura 1923an hasi zen. Estatu kolpe bat eman zuen gobernuaren aurka, Alfontso XII.a (erregeak) Estatu kolpea onartu zuen, egoera berriarekin batera eta botere guztiak Primo de Riverak bereganatuz.

Diktadura hori bi fasetan gauzatzen da:

- a) Direktorio militarra (1923-1925):** Fase honetan Primo de Riverak hurrengo ekintzak gauzatu zituen:
- 1876ko konstituzioa indargabetu
 - Kongresua zein senatua indargabetu
 - Aldundiak desegin
 - Alderdi bakarreko sistema ezarri
- HELBURUA:**
Ordena publikoa eta gizarte bakea (bere ikuspegitik) ezartzea.

b) Direktorio zibila (1925-1930): Gobernuan militarrek ez ezik zibilek ere parte hartzen dute. Fase honetan sistemari zilegitasun konstituzionala emateko saiakera ematen da, prozedura elektoral bat martxan jarritz Nazio Biltzar bat osatzeko. Ondorioz, fase honetan konstituzio berria osatzea izango da helburua, baina saiakera porrot egiten du diktadurak zeukan babes sozial eta babes politiko/militar eta ekonomikoa galtzen duelako, krisian sartuz.

Egoera honetan, eta babes militarra galdua duela 1930/01/28 Primo de Riverak bere dimisioa aurkezten du. Alfontso XIII.ak sistemaren egitura politikoa mantentzen saiatzen da, erreforma batzuk eginez eta 1876ko konstituzioa onartzen duen gobernu bat osatuz. Garai honek "Diktablanda" ezizena hartzen du eta segituan kolapsatuko du. Krisi horretan hainbat faktoreek esku hartuko dute: krisi ekonomikoak, langile mugimendu gogorrak, liberalek erregeari diktadura babestea ez barkatzea...

Era honetan, 1930eko abuztuaren 17an **Donostiako Ituna** sinatu. Diktaduraren aurka zeuden lider politiko garrantzitsuenak sinatu bi helburu nagusiekin: Errepublikaren aldarrikapena eta askatasun politiko zein erlijiosoaren bermea.

Testu inguru nahasi horren baitan, Diktablandakoen gobernuak 1930ko apirilaren 12an udal-hauteskundeak aurreratu eta ospatu. Hauteskundeak monarkikoek irabazi, baina hiri garrantzitsuenetan Errepublikarrek irabazi zuten haiek irabazi zutela pasa zen historiara. Herri txikietan kazikismoak jarraitzen zuten indarrean.

Erregeak Frantziara alde egin zuen. Behin behineko gobernu bat martxan jarri zen eta amaiera eman zitzaion konstituzionalismo liberalari eta konstituzionalismo berri bat sortu zen: **GERRARTEKO KONSTITUZIONALISMOA**.

Horrela, Espainiako Bigarren Errepublika aldarrikatzen da apirilaren 14an.

2.5.1931ko Errepublika Demokratikoa (1931-1939)



Indarrean jartzen da monarkikoak eta PSOEren ezker aldean daudenak alboratzen dituen behin-behineko gobernu bat, behin-behineko neurriak hartzen dituelarik:

- Eskubideen errespeturako araudi ezberdinak martxan jartzen ditu.
- Gizarte, politika eta inprenta delituentzat amnistia ezartzen du.
- Hauteskunde legea aldatzen du, sufragio aktibo unibertsal maskulinoa eta sufragio pasibo unibertsala (maskulino + femenino) ezarriz.

Errepublikaren lehen momentu horietan estatuak lau arazo larriei aurre egin behar zien:

- 1- Lurralde antolaketa
- 2- Armadaren eraldaketa
- 3- Nekazal arazoa: Bi neurri garrantzitsu (8 orduko lanaldia eta errentari txikiak kanporatzeko debekua)
- 4- Arazo erlijiosoak; Eliza katolikoak Estatuarekin zituen harremana arautzea.

Konstituzio berri bat osatzeko borondatea dago eta, horretarako, Gorte Konstituziogileak osatzen dira, 1931/06/28ko hauteskunde bidez (ezkerrak irabazitakoak). Gorte konstituziogile horiek Frantziako iraultzaren omenean martxan jartzen dira 1931/07/14an eta haien lehenengo ekintza behin-behineko gobernu berrestea da. Prozesu konstituziogilearen eztabaida nagusiak lehen aipaturiko arazoen ingurukoak dira: lurralde antolaketa, jendarteren eskubideak, gai erlijiosoak... Eztabaida horretan krisi bat piztuko da, Alcalá Zamoraren dimisioa eta Manuel Azañaren izendapena ekarriko duena. Dena den, gortek bere lanaren fruitua aurkeztuko dute eta 1931/12/09an konstituzioa indarrean jarriko da.

1931ko konstituzioa eragin hirukoitza izango du:

- a) Weimar-eko konstituzioa (Alemania) (1919), parlamentu sistemari dagokionez.
- b) Austriako konstituzioa (1920), jurisdikzio konstituzionalari (Auzitegi Konstituzionala) dagokionez.
- c) Queretaroko konstituzioa (Mexiko) (1917), ekonomia eta gizarte eskubideei dagokionez.

Bestalde, hauek dira bere ezaugarriak:

1. Herri subiranotasunaren ideia. Ideia hori bi eratara gauzatuko du:
 - Sufragio orokor maskulino zein femeninoaren (ezkertiarrek haren kontra; eskuinak alde uste zutelako emakumeak kontserbakorrak zirela) bidez
 - Zuzenezko demokrazian sakontzeko tresnen bidez:
 - a- Erreferendum legegilea. Gorteak egindako legea herriak berretsi edo deusezta dezake zentsoaren %15en sinadurekin.
2. Estatu "integrala". Autonomietan oinarritutako sistema (federala eta unitarioaren tartekoa). Oinarria erregio eta udalerrien autonomia izango da.
3. Eskubideen aitortzea eta bermea. Mota guztietako eskubideak aitortzen dira: kolektiboak, indibidualak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Adibidez: lanerako eskubidea, nekazariei babesa, ongizate pribatua, jabetza pribatua baina ongizate orokorraren menpe...
4. Estatu laikoa
5. Konstituzioaren balio araukorra eta nagusitasun materiala. Konstituzioa izango da benetako dokumentu normatiboa eta legeek ezin diote aurka egin.
6. Konstituzio Bermeen auzitegia = Auzitegi Konstituzionala

Konstituzio hau adierazgarri izan zuen, Errepublikak hurrengo hiru faseetan banatzen da:

1. Biurteko erreformista (1931-1933) ---- Aldaketa sakonak
2. Biurteko beltza (1933-1935) ---- Aldaketa sozialak gelditu
3. Fronte popularra eta Guda Zibila (1935-1939)

Lurralde gatazka Euskal Herrian

Konstituzioak erregioei autonomiarako eskubidea aitortzen die. Horretarako, hurrengo prozesua aurre ikusten du:

1. Erregio horren udalen gehiengoaren babesa edo populazioaren gehiengoa ordezkatzen duen udalen babesa.
2. Erreferenduma, herritarren 2/3-en onespenezkin.
3. Gorteak egindakoa berretsi.

Bai Kataluniak zein Aragoik, bai Euskal lurraldeek prozesu osoa betez Autonomi Estatutua lortuko dute. Galiziak, berriz, gerra dela eta, osatuko du onartzen ez delarik.

Autonomia Estatutua Euskal Herrian

Errepublikak osatzen denean, Euskal Herrian autogobernurako nahi handia dago eta errepublika da, hain justu, autogobernu horretarako neurriak eskaintzen diena: autonomia estatutuak.

Euskal lurraldeetan autonomia estatutuaren aurreproiektu bat eta bi proiektu egongo dira:

- Eusko ikaskuntzak egindako **aurreproiektua**.
- Lizarrako Estatutua (**proiektua**). Indar abertzale eta karlistek prestatzen dutenez gero, izaera abertzale eta akonfesionala du. Alkateen mugimendutik sustatuko da eta Hego Euskal Herriko 4 lurraldeak hartuko ditu. Hala ere, konstituzioaren aurkakoa denez, ez da baliozkoa izango zeren eta eredu konstituzionaletik urrun dagoelako.
- Gestoreen Estatutua (**proiektua**). Indar ezkertiar eta errepublikarrek sustatutako estatutua da, konstituzioaren ondorengoa. Gestoreak diputazioak dituzten behin behineko gobernuak dira, Madrilen hautatutakoak. Hasieran estatutuak Hego Euskal Herri osoa hartzeko borondatea aurkezten du, baina azkenean Nafarroak kanpoan gelditzen da. Estatutu honen onarpena gatazkatsua izango da, ezkertiarren eta abertzaleen arteko talkak egongo direlako. Dena den, Euskal udalerrien Biltzarretan onartuko da, erreferendum bidez onetsiz, 1933an. Gorteek, ordea, ez dute onartuko (garai kontserbadorean gaude) eta prozesua geldirik geldituko da Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi arte. Horrela, 1936an indarrean jarriko da, Guda zibila martxan zegoelarik.

2.6.Sistema politiko frankista

Guda Zibilaren ostean ezarritu zen sistema politikoari frankismoa deitzen zaio. Guda amaitu zenetik Franco generala hil zen arte (1975/11/20). Ezaugarri nagusia "kaudillajea" (hau da, kaudilloa kontrolatzen duen sistema). Franco generalak botere osoak kontrolatzen zituen. Agintzeko modua diktadura faxista eta agintekeria pertsonalean oinarritzen zen.

Francoren diktaduran nonon zeuden Francoren estatuak, kaleak, plazak... Konstituzionalismoaren ikuspegitik: Ez zegoen konstituziorik, horren ordez, Frankismoaren 7 oinarritzko legeak zeuden indarrean:

- (1) Lanaren forua (1939): Bizitza ekonomiko eta laborala arautzen zuen.
- (2) Gorte Espainolak sortzeko legea (1942)
- (3) Espainolen forua (1945): Lege honek arautzen zuen Espainolen eskubide eta betebeharrak; esan behar da lege honek errekonozitzen zituen eskubideak formalak zirela soilik.
- (4) Erreferendum legea (1945): Honek teoriarik arautzen zuen herritarrei nola galdetzea. Erreferendumetan ez zegoen bozkatzeko askatasunik; kanpaina osoa Frankistek egindakoa haien alde, herri txikietan klientelismoa, kazikismoa eta abar bizi bizirik...
- (5) Estatu Buruzagitzaren oinordeko legea (1947): Honek konstituitu zuen Espainiar Estatua erresuma batean eta Francori ematen zion Estatu buruzagitza bizitza osorako (lege hau erreferendum bidez onartu zen).

- (6) Mugimenduaren oinarriko printzipioen legea (1958): Sistema politiko Frankistan alderdi politiko bakarra zegoen (Movimiento Nacional); lege honek alderdi politiko hori zuen ideologia printzipioei lege lerrun (indar) eman zien.
- (7) Estatuko Lege organikoa (1967): Lege honek forma aldetik konstituzio itxura eman nahi zuen eta aurreko lege batzuk moldatu zituen; lege hau ere erreferendum bidez onartu zen.

Boterearen antolaketari dagokionez lau hanka nagusi zituen eta printzipio nagusia botere banaketaren ordez botere batuketa zen.

- (1) Estatu buruzagitza: Francoren eskuetan zegoen, Francok hautatzen zuen Espainiako gobernuburua, beto eskubidea zuen eta erreferenduma deitzeko eskumena ere. Gobernuburu ospetsuena Carrero Blanco izan zen.
- (2) Gobernua: Gobernuak zeukan presidente bat, ministroen kontseilu bat eta batzorde delegatuak, gutxi gorabehera egiten zuena estatuko politika zuzentzea zen, beti ere diktadorearen menpean.
- (3) Gorteak: Hiru herenetan edo adarretan banatzen ziren
 - "Movimiento Nacional"-eko kideak: alderdi faxista guztien batura zena.
 - Lan mundutik zihoazen ordezkariak (Frankismoaren organizazio sindikalak)
 - Familia eta udalerrietako idazkariak
- (4) Movimiento Nacional: Erregimenak mantentzen zuen alderdi bakarra, ideologia faxista zuten alderdi guztien batura.

Diktadura hau egon zen oinarriturik askatasun ezean eta edozein motatako oposizioaren aurkako errepresio basatian.

3. DIKTADURATIK EGUNGO SISTEMARAKO TRANTSIZIOA ETA 1978ko KONSTITUZIOA

3.1. Trantsizioa

Zergatik zabaltzen da trantsizio politiko bat Espainiar estatuan? Francoren heriotzarekin, sistema politiko Frankista krisian jarri zen, sistema honek ez zuen topatzen non oinarritu, bere buruzagia hilda zegoen eta. Krisi hori sortzen da zeren eta, behin Guda Zibila amaituta jartzen den sistema autarkikoa (buruzakia) da, 1950-1960 hamarkaden ondoren aldaketa ekonomikoak ematen dira eta hasten da ekonomiaren liberalizazioa; alor ekonomikoan 1960ko hamarkadan aldatzen da, hamarkada horretan teknokratek gobernuan sartu ziren (faxistak ideologia politikoz baina negozioak egiteko liberalak). Horrekin batera desarrollismoa hasi zen eta ekonomiaren liberalismoarekin turismoaren gorakada eman zen eta herrietatik hirietako migrazioa ere eman zen. Talka moduko bat ematen da, zeren planteatzen da ekonomia zabaldu behar dela baina sistema politikoa guztiz itxia, hierarkizatua... da.

Gainera aldi horretan alor Europarrean ere sortzen dira talkak, Europar Ekonomia Elkartea (EEE) gero Europar Batasuna (EB) izango dena sortu zen 1957.urtean, Espainia bertan sartzeko intentoa egin zuen baina Espainiak zuen sistema politikoarengatik (Diktadura) ezetza jaso zuten, baina esan beharra dago, Espainiak “atzeko atetik” Libre komertzioko ituna sinatu zuela elkartarekin; honen ondorioz Europar Batasunaren demokrazia zalantzan jar dezakegu.

Halaber, Frankismoaren oposizioa handituko da, Estatuaren barruan zein kanpoan. Horren adibidea, Burgoseko Prozesua da, prozesu hartan ETaren buruzagitza epaitu zuten, azkenean prozesu horrek sortu zuen Estatu barruko eta kanpoko oihartzun handia zela eta, heriotza zigorrak konmutatu zituzten; esan dezakegu epaiketa honetan azkenean Frankismoa epaitu egin zela. Hemendik aurrera Frankismoa gainbeheran sartuko da.

Francok Carrero Blanco izendatu zuen gobernuburu, nor 1973an hilko dute; haren ordez Arias Navarro jarri zen gobernuburuan, hau gobernuan zegoela Franco hil egin zen 1975/11/20

Franco hil eta gero Frankismoan bi joera:

- Kontinuumoa: (Bunker)
- Erreforma: Pisuko argudioa Europar Batasuna izan zen. (UCD)

Eta oposizioan bi joera ere desberdindu ahal ditugu:

- Erreforma: Espainiaren batasuna, monarkia... (PSOE)
- Haustura: Hasiera batean PCE hemen zegoen baina hilabeteak pasa ahala erreformaren aldera pasa zen.

Trantsizioa bi fase nagusi izan zituen:

1.Fasea: 1975 abendua – 1976 ekaina

1975ko azaroaren 20an Franco hil zen eta 1975ko azaroaren 22an legean zegoen bezala Juan Karlos I tronua hartzen du (Estatu buru bihurtzen da). Kargua hartzeko zin egin behar izan zituen Frankismoaren alderdi bakarreko printzipioak.



Momentu horretan Arias Navarro gobernuan jarraitzen zuen, honek planteatzen du Demokrazia bat planteatu behar dela baina “a la española”.



Lehen irekiera bat planteatzen dute baina oso mugatua, (Biltzeko eskubidearen legea eta asoziazio politikorako eskubidearen legea); ematen da lehen onarpen minimo bat eskubide horretarako baina oraindik mugekin; adibidez, biltzar publikoak egiteko Gobernadore Zibilar baimena eskatu behar zen, eta horrek guztiz demokratikoa ez zenez nahi zuenentzako ematen zuen baimena.

2.Fasea: 1976 uztaila – 1978 abendua

Arias Navarro dimititu egiten du eta Adolfo Suarez bilakatzen da presidente, erregeak izendatuta. Adolfo Suarez Espainiako sistema demokratikoaren aitatzat jotzen dute, baina ez da ahaztu behar Adolfo Suarez-ek Movimiento Nacional-eko idazkari nagusia izan zela.



Honek formula bat planteatuko du trantsiziorako “Legetik legera legearen bidez” “Sistema aldatu behar da baina haustura demokratikorik gabe”.

Garai honetan gorpuztuko da trantsizioa bere ezaugarri guztiekin. Onartuko da Erreforma politikorako legea gorte Frankistetan (1976 abendua), alderdi politikoen legeztapena (famatuena PCE 1977eko apirilean) eta horrekin batera 1977ko ekainean hauteskunde orokorrak ematen dira. UCD (Adolfo Suarez) garaile.



Fase honetan klabea izango da, teoriarik behintzat, literatura ofizialaren arabera KONSENSOAREN AROA.

Moncloako paktuak (itunak): Paktu ekonomiko eta politikoak, maila ekonomiko eta politikoan trantsizioa egin ahal izateko itunak 1977/10/25. Alderdi, sindikatu, enpresarien arteko akordioak trantsizioa garatzeko.

Erreforma politikorako legea: Trantsizio politikoaren instrumentu juridiko nagusia, bidea egiteko. Formalki behintzat Frankismoaren zortzigarren oinarrizko legea izan zen, gorte Frankistetan onartua, baina materialki, doktrinarentzat, zuzenbidean adituak direnentzat, esaten da zubi-lege bat dela. Lege bat zubi moduan egiten duena sistema zahar eta berriaren artean. Sistema demokratiko bat osatzeko zutoinak jarri zituen, aukera ematen zuen Europan homologagarria izango zen demokrazia eraikitzeko. Lege sinplea eta laburra soilik bost artikulua dituena, guri bereziki lehen hiruak interesatzen zaizkigu:

- 1.Artikulua: Eraiki nahi zen erregimenaren printzipioak ezartzen zituen: herri subiranotasuna, oinarrizko eskubide bortxaezinak eta gutxienezko botere banaketa.
- 2.Artikulua: Gorte berriak ezartzen zituen, kongresua eta senatua eta demokrazia organikoari amaiera ematen zitzaion eta hauek hortik aurrera modu demokratikoan hautatuko ziren
- 3.Artikulua: Sistemaren erreformaren oinarriak jartzen ziren

Preso politikoentzako eta Frankismoaren agintariei AMNISTIA 1976ko uztailaren 3an Amnistia Legearen bidez.

Konstituzio berria egiteko prozesua; elementu propio bat dauka nahiko arraroa dena eta da konstituzio espainiarra bi ganbaradun gorte konstituziogiletan onartu zen, gorte hauek konstituzioa egiteaz gain lege arruntak egiteko ahalmena ere zuen. Hortik aurrera gorte konstituziogiletan ponentzia konstituziogile bat martxan jarri zen, ponentzia horrek konstituzio proposamen bat egin zuen, proposamen hori eztabaidatu, bozkatu eta onartu egin zen gorteetan 1978ko urriaren 31an, eta berriz berretsi zen erreferendumean 1978ko abenduaren 6an, erreferendum onetan onartu egin zen, estatu mailan modu zabalean.

Erreferendum onetan **estatu mailan** parte hartzea %67koa izan zen eta abstentzioa %33koa; parte hartu zutenen artean konstituzioari bai %88 esan zioten eta %12 ezetza eman zioten.

Euskal Herrian aldiz, argazki hori nahiko dezente aldatzen da; Gipuzkoan, parte hartzea %43koa izan zen eta baiezkoa %64; Bizkaian, parte hartzea %42 eta baiezkoa %72; Araban, parte hartzea %59koa eta baiezkoa %72; Nafarroan, parte hartzea %66koa eta baiezkoa %76.

3.2.1978ko Konstituzioa

Doktrinalki kontsideratzen da Espainiar Konstituzioa II.Mundu Gerra osteko konstituzionalismo demokratiko eta sozialaren parte dela. Joera horretan egon ziren bi konstituzionalismo olatu: lehen olatua Gerra amaitu eta geroagoa (Frantzia, Italia, adibidez) eta gero European bigarren bat dago osatzen dutenak 1970ko hamarkadan diktadoreekin amaitu zutenak (Grezia, Portugal eta estatu Espainolak). Portugalen bai eman zen diktadoreekin haustura bat (Krabelin iraultza), Espainiar estatuan aldiz ez zen horrelakorik eman.

Espainiar Konstituzioa sinkretikoa da (iturri desberdinetatik edaten du).

Espainiar konstituzioa lehenesten du demokrazia ordezkatzailerik demokrazia zuzenaren aurrean eta zehazki alderdi politikoei paper zentrala ematen die sistema politikoan. Honekin esan nahi da, ordezkariak lehenesten dela, horregatik erreferendumak egitea oso zaila da.

Konstituzio normatiboa da; esaten da ere konstituzio bermatzailea dela (biltzen dituen eskubideentzako bermeak jasotzen dituelako), eskubide guztiek espainiar konstituzioan ez dute babes maila berdina.

Konstituzioa zurruna da, moldatzeko zaila.

Eredu ekonomikoari dagokionez, merkatu askatasunean oinarritzen da.

Eredu territorialari dagokionez, eredu autonomikoa finkatzen du, baina modu irekian planteatzen du; hau da, konstituzioak ez du mapa finkatzen. Modu irekian baina muga batzuekin.

Konstituzioa irekia da kanpoko ordenamendu supranazionaleri; onekin esan nahi da, Espainiak konstituzioa egin zuenean Europar Batasunean ez zegoen baina horretan sartzen bazen planteatzen zuen nola izango zen erakunde honen zuzenbidearen inplantazioa bertan sartzen bazen, 93.artikuluaren.